EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Vivienda
Dirección de Vivienda y Arquitectura

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

URTEKO TXOSTENA
2016. URTEA

URTEKO TXOSTENA
2016. URTEA

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

AURKIBIDEA

1. **AURREKARIAK**

2. **IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK**
   2016ko irailaren 28ko ohiko osoko bilkura

3. **IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA JARDUKETAK**
   3.1. Jakinarazitako salbuespenak
   3.2. Izapidetutako desafekzioak
   3.3. Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua
   A- Kontseiluari egindako jakinarazpenak
   B- Kontseiluan aurkeztutako salaketak
   C- Kontsultak

4. **IRISGARRITASUN ARLOAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETEN GAINEKO INFORMAZIOA EMATEA**

1. eranskina — **2016ko irailaren 28ko ohiko osoko bilkuraren akta**
2017ko azaroaren 6ko ohiko osoko bilkuran onartua

2. eranskina — **Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari jakinarazitako salbuespenen indizea**

3. eranskina — **Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko parte diren erakundeen jarduketen berri emateko txostenak**

1. AURREKARIAK

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea honako helburu honekin onartu zen: hiri-ingurunearen, espazio publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informaziorako eta komunikaziorako sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikazio-zailtasunak edo muga psikiko zein sentsorialak –aldi baterakoak zein iraunkorrak– dituztenek era autonomoan erabil eta balia ditzaten.

Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen V. Idazpuruak, 24. artikuluan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua sortzen du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako aholku eta parte-hartze organo gisa, bertan honako hauek ordezkatuta izanik: Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioak, irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen alde jardutea xede duten elkarte-erakundeetatik ordezkaritza handiena dutenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak, sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteetatik ordezkaritza handiena dutenak eta Arkitektoen, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen eta Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien elkargoak. Legearen 25. artikuluak, berriz, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osaera eta azpiegiturak zehaztu ditu.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira, 26. artikuluari jarraiki:

a) Urtean behin txosten bat egitea, legean ezarritakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
b) Irisgarritasunaren arloan eskumenak dituzten organoei aholku ematea eta jarduteko irizpideak proposatzea, legean xedatutakoaren arabera.
c) Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
d) Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren esku utzitako gainontzeko eginkizun guztiak.

Horiek horrela, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak esleitutako eginkizunak betez, jarraian Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2016ko jarduketen txostena aurkezten da.

2. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK

2016ko irailaren 28ko ohiko osoko bilkura

2016ko irailaren 28an, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2016ko ohiko osoko bilkura egin zuen.

Dokumentu honen **1. eranskin** gisa, ohiko osoko bilkura horren aktaren zirriborroa aurkezten da, Kontseiluaren hurrengo ohiko osoko bilkuran aurkeztuko dena onartua izan dadin.

3. IRISGARRITASUN ARLOKO LAGUNTZA JARDUKETAK

Orain artean Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren mendeko Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza izan da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari laguntza tekniko eta juridikoko zerbitzua eskaini diona Euskal Autonomia Erkidegoan indarren den irisgarritasun arloko araudiarekin lotutako auzietan.

Jarrian 2016an zehar egindako jarduketok deskribatzen dira.

3.1. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari jakinarazitako salbuespenak

68/2000 Dekretuaren "Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan" izenburudun V. eranskineko 3.3 artikuluan ezarritakoa betez, 2016an zehar **207 salbuespen** komunikatu zaizkio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari.

LURRALDEA	ESPEDIENTEAK	UDALERRIAK
ARABA	17	4
BIZKAIA	104	13
GIPUZKOA	86	23

Salbuespenon zerrenda dokumentu honen **2. eranskinean** dago jasota.

3.2. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Idazkaritzak izapidetutako desafekzioak

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatutako sustapen libreko etxebizitzetan, Laguntza Zerbitzuak eta Batzorde Iraunkorreko Zuzendaritzak egin dituzte aurretiko txostenak, eta, desafekzio txostenak, Etxebizitza Zuzendaritzak.

2016an zehar zazpi eskaera espediente izapidetu dira, osotara 3 etxebizitza eta 12 garaje plaza desafektatu direlarik bizitegi-eraikinetan.

LURRALDEA	ETXEBIZITZAK	GARAJE PLAZAK
ARABA		3
BIZKAIA	2	7
GIPUZKOA	1	2

DATA	ESKATZAILEA	DESAFEKTATUTAKO ELEMENTUAK	SUSTAPENA
2016-01	VIVIENDAS DE VIZCAYA SA	Bi garaje plaza	50 etxebizitza, garaje eta trasteleku San Antonio etorbidea, 42-54 ETXEBARRI (BIZKAIA)
2016-02	AMENABAR SA	Etxebizitza bat Hiru garaje plaza	80 etxebizitza, garaje eta trasteleku VII. lursaila-A eta B GETXO (BIZKAIA)
2016-03	PERKEDER KOOPERATIBA	Etxebizitza bat	Osatu gabeko espedientea (ez da beharrezko dokumentazioa erantsi)
2016-04	BASAÑEZ DERIVADOS	Hiru garaje plaza	52+48 etxebizitza, garaje eta trasteleku Villosa etorbidea eta Carlos Larrea Laudio (Araba)
2016-05	INMOGROUP	Etxebizitza bat Garaje plaza bat	7 etxebizitza, garaje eta trasteleku Lursaila: M.Z. 032 IYOLA II Donostia (Gipuzkoa)
2016-06	GARBOLA	Etxebizitza bat Bi garaje plaza	60 etxebizitza, garaje eta trasteleku Basurto auzoa, Castrejana errepidea 20-22 Bilbo (BIZKAIA)
2016-07	INMOGROUP	Garaje plaza bat	40 etxebizitza, garaje eta trasteleku Lursaila: R 2.1-R 2.2 Etxebeltz-Izarra Azpeitia (GIPUZKOA)

3.3. Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua

Zerbitzu honek EAEn indarrean den irisgarritasun araudiaren interpretazioaren gaineko kontsulta eta salaketa juridiko eta teknikoei erantzuten die.

A.- Kontseiluari egindako jakinarazpenak irisgarristasun aurreikuspenekin lotuta:

KIJ	ESKATZAILEA	GAIA	
2016-01	Ortuellako Udala	Lurzoru publikoa okupatzea etxebizitza eraikin bateko fatxadan igogailu bat jartzeko	(bidalitako erantzuneko zatia) Adierazitako irisgarritasun araudiak eta bera garatzeko arauak plangintza urbanistikoaren gainetik daudela nabarmendu behar da, Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiek argi erakusten duten bezala (ikusi Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2006ko ekainaren 28an emandako epaia). Horrenbestez, inolaz ere ezin da esan behar bezala justifikatutako lurzoru publikoaren okupazio batekin lehentasuna

KIJ	ESKATZAILEA	GAIA	
			ematen zaienik interes partikularrei interes komunaren gainetik, are gehiago sortutako oinezkoentzako ibilbideetan indarrean den araudian ezarritako baldintzak betetzen direnean.
2016-02	Partikular bat IREKIA kanalaren bidez	Komunitateko obrak eta eraikina kontserbatzeko betebeharra	Eskumeneko zerbitzuetara bideratu da
2016-03	Turismo Saila	Turismo enpresen irisgarritasun zigilua onartzen duen dekretuari alegazioak	Honako hauen alegazioen berri izan dugu: - Osasun Saila. - FEBAS. - Elkartean. - Gasteizko Udala. - Travel For All. Dekretu proiektuaren izapidetzea bertan behera geratu zen Turismo Saileko gobernu taldea aldatu zenean. Orain artean ez da kontaktu berririk izan.
2016-04	Partikular bat Sailburuordetzaren bidez	Irisgarritasun lanak egiteko beharrezko gehiengoak Jabetza Horizontalaren Legearen baitan	Partikularrari bere lurraldeko BIZILAGUN zerbitzuetara eta elkarteen zerbitzu juridikoetara jotzea gomendatu zaio (FEKOOR kasu honetan)
2016-05	Industria Saila	Gasolindegien Dekretu Proiektuari aurkeztutako aintzat hartu gabeko alegazioak	
2016-06	Partikularra	Zero kotako kasu berezia	Egiteke
2016-07	Partikularra	Eskailera-igotzailearen patentea	Produktua garatzeko beharrezko laguntza lortzeko Ingurubideko eta Gasteizko Udaleko Oikos proiektuko kontaktuak nola lortu jakinarazi zaio
2016-08	Donostiako Udala	PPk aurkeztutako mozioa	- Donostiako Udalbatzaren eskaera Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari euren eskumenen barruan Donostian egiten diren ekipamendu eta azpiegiturak irisgarritasun unibertsala bermatzeko arauak errespetatuz eta kontuan hartuz egin daitezen, horrela desgaitasunen bat duten herritarren zein mugikortasun urriko pertsona ororen autonomia osoa ahalbidetzeko. - Donostiako Udalbatzaren eskaera Eusko Jaurlaritzari eta Euskal Trenbide Sareari Oletako ibarra egokitzeko lanetan engaiatzeko, Altzako auzotarrek eskatu bezala inguruan aparkalekua eta gune berdea eraikitzeko proiektua gauza dadin.
2016-09	Arabako Batzar Nagusiak	Talde mistoak aurkeztutako mozioa	- Arabako Batzar Nagusien eskaera Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari 2017. urtea Irisgarritasun Unibertsalaren Urtetzat izendatzeko.

KIJ	ESKATZAILEA	GAIA	
			- Arabako Batzar Nagusien eskaera Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko neurriak hartzeko, dibertsitate funtzionala kontuan izanik.

A.- Kontseiluan aurkeztutako salaketak irisgarristasun aurreikuspenekin lotuta:

Ekitaldi honetan salaketa bat jaso da zerbitzu honetan.

SAL	ESKATZAILEA	GAIA	
2016-01	Partikularra	Jolas-parkeetako atrakzioen irisgarritasun eza	

C.- Telefono edo posta elektroniko bidezko kontsultak irisgarritasun aurreikuspenekin eta bestelako araudietan dituzten inplikazioekin lotuta, baita arkitektura-oztopoak kenduz irisgarritasuna hobetzeko aurreikusitako diru-laguntza lerroen gainean ere. Denborarekin diru-laguntza horiek interpretatzeko hainbat irizpide osatzen joan dira, eta, hala, horien gaineko informazioa eskaintzen da.

2016an zehar, **131 kontsulta**erantzun dira orotara.

Zerbitzuan jasotako kontsultak aztertuta, bai telefono bidez erantzun direnak bai txosten bat ematea ekarri dutenak, honakoa ondoriozta daiteke:

ARAUDIA	Irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren gaineko informazioa
	1/2013 Errege Lege Dekretu indarrean sartu izanaren eta honen irismenaren gaineko ezezagutza orokorra da
	Txostenak egiten dituzten teknikarien artean ezezagutza nagusi da irisgarritasun-praktikagarritasun-salbuespen irizpideen arteko ezberdintasunen inguruan
	Nahastea handia da bai indarrean araudi bat baino gehiago izateagatik bai arauen arteko aplikazio hierarkia zein den argi ez izateagatik
	Autonomia mailako araudiaren eta Estatu mailako araudiaren arteko gatazka puntuak jarri dira mahai gainean
JABEEN ERKIDEGOAK	Bizitegi eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzeko esku hartzeen derrigortasunarekin eta horien irismenarekin lotutako arlo teknikoak
	Jabetza Intelektualari buruzko Legeari atxikitako akordioak formalizatzeko moduaren inguruan izandako kontsultak Eusko Jaurlaritzako Bizilagun zerbitzura bideratu dira
PROZEDURAK	Eraikinak irisgarritasun araudira egokitzeko lanak egiteko diru-laguntza lerroen gaineko informazioa
	Etxebizitzak eta garaje plazak desafektatzeko prozeduraren gaineko informazioa
	Araudia interpretatzeko irizpideak argitaratzeko eskaera dago, batik bat udal teknikarien artean salbuespenak noiz onartu behar dituzten jakiteko

4. IRISGARRITASUN ARLOAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUKETEN GAINEKO INFORMAZIOA EMATEA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak, 2012ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran, urtero foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari irisgarritasun arloan egiten dituzten jarduketen inguruko txosten bana eskatzea adostu zuen. Txostenotan euren eskumeneko sail, zuzendaritza eta erakundeetan egindakoa bildu behar dute, jarraian Kontseiluak jasotako informazio hori Eusko Legebiltzarrera urtero bidaltzen duen txostenean sartu ahal izateko –Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 2/1997 Legeak xedatutakoari jarraikiz–.

Horrenbestez, akordio hori betez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak irisgarritasun arloan 2016an zehar euren eskumenen baitan aurrera eramandako jarduketen txostena eskatu zien hiru foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzako sail guztiei (irisgarritasun planak, esku hartze materialak, diru-laguntza deialdiak, jardunaldiak...), ostean informazio hori guztia Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren urteko txostenean sartzeko.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko eskaerari erantzun dioten erakundeek emandako informazioa honako dokumentu honen **3. eranskinean** jaso da (oraindik ere atxiki gabe dago).

Gasteiz, 2017ko azaroaren 6a

Iñaki Arriola López jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentea

Pablo García Astrain jauna

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkaria

1. eranskina

2016ko irailaren 28ko ohiko osoko bilkuraren akta

2017ko azaroaren 6ko ohiko osoko bilkuran onartua

2016KO IRAILAREN 28KO BILERAREN AKTA
IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

OHIKO BILKURA

DATA: 2016ko irailaren 28a, asteazkena

ORDUA: 10:00 – 13:30

LEKUA: 6. aretoa, Lakua 2ko beheko solairua
Donostia kalea 1, VITORIA-GASTEIZ.
EUSKO JAURLARITZA

BERTARATUAK:

Angel Toña Guenaga jauna
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentea
Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
Eusko Jaurlaritza

Lide Amilibia Bergaretxe andrea
Gizarte Politiketako sailburuordea
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Ignacio Basáñez Alfonso jauna
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren idazkaria
Etxebizitzako zuzendaria.
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Almudena Ruiz de Angulo del Campo andrea
Garraio Azpiegituren zuzendaria
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Eusko Jaurlaritza

María Jesús Múgica Anduaga andrea
Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria
Osasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Joakin Tellería Agirrezabala jauna
Baliabide Orokorren zuzendaria
Ogasun eta Finantza Saila
Eusko Jaurlaritza

Polentzi Urkijo Sagredo jauna
Baliabide Materialen zuzendaria
Hezkuntza Saila
Eusko Jaurlaritza

Aitor Uriarte Unzalu jauna
Joko eta Ikuskizunen zuzendaria
Segurtasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Javier Larrea Rekalde jauna
Ezintasuna Ebaluatzeko Ataleko burua
Bizkaiko Foru Aldundia

Txaro Rodrigo Montalvo andrea
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zuzendari nagusia
Gipuzkoako Foru Aldundia

Jorge Magán Plazaola jauna
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko idazkaria

Judith Arróniz Sáenz del Castillo andrea
Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko idazkaria

Ricardo Pérez Santos jauna
Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioaren Irisgarritasun Batzordea
Euskal Gorrak

Juan Carlos Sola Guzmán jauna
FEKOOR Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileko zuzendaria - Elkartean Bizkaia

Concepción Franco Ruiz andrea
Eginaren Eginez, Arabako Ezintasuna Daukaten Pertsonen Elkarteko ordezkaria – Elkartean Araba

Raquel Barroso Ordóñez andrea
Elkartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkaria
Elkartu Gipuzkoa

Oskar Salicio Rego jauna
Ortuellako Udalaren Hirigintza eta Etxebizitzako zinegotzia
Eudel

LAGUNTZA TEKNIKOA:

Agustín de Lorenzo jauna
Kontseiluaren batzorde iraunkorraren idazkaria
Etxebizitza Zuzendaritza
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Mercedes Fernández Urcey andrea
Kontseiluaren laguntza-zerbitzuan hasiko den arkitektoa
Etxebizitza Zuzendaritza
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Igor Díaz de Gereñu jauna
Eraikuntzaren Araudi eta Kalitate Kontrolaren Zerbitzuko teknikaria
Etxebizitza Zuzendaritza
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

GONBIDATUAK:

Javier Regalado Herrero jauna
Kontseiluaren laguntza teknikoko zerbitzua uzten duen arkitektoa

Mercedes Garmendia andrea
Turismoko zuzendaria
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Carlos Izaguirre jauna
Turismo Zuzendaritzako antolakuntza-arloko arduraduna
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkura bildu da 2016ko irailaren 28an.

Saioa ireki du Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidente eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toña Guenaga jaunak. Aurkezpen-erronda egin dute.

Aurreikusita dagoen gai-zerrenda jarraitzeko, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren idazkari eta Etxebizitzako zuzendari Ignacio Basáñez jaunari eman dio hitza.

1 AURREKO KONTSEILUAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkari eta Etxebizitzako zuzendari Ignacio Basañez jaunak 2015eko azaroaren 18ko Aktaren edukia laburbildu du.

Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoak gogora ekarri du ezen, aurreko bilkurako 4. puntuan adostutakoaren arabera, kontseiluko kideei helarazi behar zitzaiela UDALEK IRISGARRITASUN-PLANAK EGITEKO ETA EGUNERATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAri (2015eko UZTAILAREN 28ko AGINDUA) buruzko ebazpenaren laburpena. Alabaina, ez dute informazio hori jaso.
Kontseiluko Idazkaritzak jakinarazi du, ebazpenaren laburpena kideei banan-banan igorri ez bazaie ere, ebazpen hori bera EHAAn argitaratu zela (45. zk., 2016ko martxoaren 7a), Etxebizitza Sailburuordetzaren 2015eko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez; gainera, Kontseiluaren 2015eko Urteko Txostenean jasota dago.

Aho batez onartu dute 2015eko azaroaren 18ko Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Akta (1. erabakia).

2 2015EKO AZAROAREN 18KO OSOKO BILKURATIK ERATORRITAKO JARDUNAK

a) ETXEBARRIKO LOTURA-GELTOKIARI BURUZKO PROZESU JUDIZIALAREN EGOERA

Prozesu horren aurrekariak Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko bilkura bereziko aktan daude zehaztuta.
Bizkaiko Foru Aldundiak prozedura horri buruzko epaia helarazi digu; horren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak autobus-geralekuen kokapena zehazteko eskumena du eta Udalak

gauzatutako jardunen eragina aldundiari entzunaldi-eskaera egin arteko unera atzeratzen du.
Gaur egun, geralekua Boluetako metro-geralekura lekualdatu dute.

Fekoor-ek desadostasuna adierazi du sententziaren ondorioen gainean; izan ere, Fekoor-en iritzian, auzitegiak eskumenen alderdiari baizik ez dio erreparatu, eta, geralekua Boluetara lekualdatzean, geraleku irisgarriak diren arren, ez dute kontuan hartu garraio-zerbitzuaren beraren kalitatea. Hala bada, lehengo geralekuak erabiltzaileei eskaintzen zizkien abantailak ez dituzte kontuan hartu. Ekintzaren bat gauzatzea proposatu dio Kontseiluari, epaiak proposatutako konponbideak pertsona guztien bizi-kalitatea ez duela areagotzen eta zerbitzua ere ez duela hobetzen argi adierazteko.

Kontseiluko Idazkaritzaren iritzian, egoki da epaiaren ondorengo prozesu berrian mota horretako egoera gehiago gertatzea ekiditeko zein jarduera abian jarri zehaztea. Alabaina, bere iritzian, Kontseilua ez da nor geralekuaren kokapena erabakitzeko.

Eginarez Eginez elkartearen iritzian, konponbide berria irisgarria bada ere, balizko idazki horrek geralekua berriz ere Etxebarrin ipintzea erreklamatu behar luke.

Kontseiluak idazki bat sinatzea erabaki dute, epaia eta zerbitzua berrezartzea gorabehera, epaiak irisgarritasun- eta mugikortasun-arloei arretarik eskaini ez diela eta baimenaren eskumen-alderdia bakarrik aintzatetsi duela nabarmentzeko.
Kontseiluak iragan 2015eko maiatzaren 20ko osoko bilkura berezian gai horri berari buruz egindako idazkian adierazi zuen jarrera berretsi behar da, eta garraio-zerbitzu irisgarriak ezartzea beharrezkoa dela azpimarratu. Horretarako, jakina, geralekuen kokapena zaindu behar da, eta garraiobidearteko-loturak egin ahal izatea, ibilbide irisgarriak osatuz, betiere zerbitzuaren kalitatea hobetzeko xedearekin.
Idazkia aldundiei eta Eudel elkarteari helaraziko zaie, hala nola Etxebarriko Udalari, prozesuan inplikatutako aldeetako bat denez. (2. erabakia)

b) ERAIKIN PUBLIKOETAN SARTZEKO GUNEEN IRISGARRITASUN-BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIO-FITXAK AURKEZTEA. IRISGARRITASUN-PLANETAN EZARTZEA.

Fitxa horiek osatzea proposatu zuten aurreko bilkuretan; Arartekoarekin elkarlanean aritzea zen asmoa, eraikin publikoetarako sarbideen eta zerbitzuen irisgarritasunari buruzko datuak eskainita, irisgarritasun-mapak osatzeko.

Ereduzko fitxak aurkeztu dituzte –aurreko bilkuran ezagutarazi zituzten–, eta, nabarmendu dutenez, irisgarritasun fisikoa bezain garrantzitsua da eraikinotan eskaintzen dituzten zerbitzuen irisgarritasuna.

Fitxak kideei formatu digitalean helaraztea erabaki dute, eta hogeita hamar egun ematea, kideek fitxen diseinuari buruzko ekarpenak egin eta fitxak beraiek bete ditzaten, bakoitzaren ardurapeko eraikin publikoei buruzko datuak adierazita. (3. erabakia)

c) PARKE ERAIKIAREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEAN KONTUAN HARTZEA, BESTEAK BESTE, ERAIKINAREN BARNEALDERAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO ESKAERA

Kontseiluko Idazkaritzak adierazi duenez, iturri desberdinetatik bilduko dituzte datuak, irisgarritasun-diagnostikoak egin ahal izateko. Iturriak honako hauek izan daitezke: Etxebizitzaren Behatokia, Eraikinen Azterketa Teknikoen erregistroa, egindako edo abian dauden berrikuntza-proiektuak, irisgarritasun-planak, erakundeen azterlanak, etab.
Lehenagoko bilkuretan Eustatekin harremanetan jarri gara irisgarritasun-irizpideak koordinatzeko eta bisitatzaileek eraikinen gainean zer datu bildu zehazteko.
Euskal Gorrak elkarteak eskatu du fitxetan komunikazio- eta informazio-sistemei arreta berezia eskaintzeko.
Irisgarritasunaren arlo guztietako bereizgarriak kontuan hartuko dituen diseinua egiteko lantaldea sortzea proposatu dute, 2020. urteari begira lan egingo duena. Kontseiluko Idazkaritzak taldea zein kiderekin osatu proposatuko du, Kontseiluko eta beste esparru batzuetako kideak kontuan hartuta. (4. erabakia)

d) GASTEIZKO TRANBIA-GERALEKUEI BURUZKO PROZESU JUDIZIALAREN EGOERA

Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak jakinarazi digunez, Gasteizko tranbia-geralekuak irisgarritasuneko araudira egokitzeko obrak azken ukituen fasean daude. Tranbia-geralekuak autobus-markesinen araudian ezarritako betekizunetara moldatu dira, ez baitago berariazko zehaztapenik tranbiei buruz. Hala bada, eserlekuak egokitu dituzte, eta komunikazio-paneletako bat kendu dute sarbidea zabaltzeko.

Eginaren Eginez elkartea egin diren ekintzen gaineko balorazioaren zain dago, epaia betetzat eman ahal izateko. Horrenbestez, obrak amaitzearen jakinarazpena jaso ondoren aztertuko dute kontua peritu batekin. Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak obrak amaitu arte ez itxaroteko deia egin du, eta harremanak hobera ekartzekoa.
Era berean, Kontseiluari eskatu diote tranbia-sare berrian aurreikusitako bide-adarrei buruzko behar den informazioa bil dezan (Salburua eta Unibertsitateak) eta bide-zati berriotan irisgarritasun-araudia betetzen den egiazta dezan.
Idazkaritzaren iritzian, Kontseiluak ezin dezake ikuskaritza-lanik egin, bai ordea administrazioen eta elkarteen arteko lankidetza sustatu, indarreko araudia, bereziki irisgarritasun-arlokoa, beteko dela bermatu dezaten.

Irisgarritasun-arloko araudia betetzeari buruzko idazki oroigarri bat bidaltzea erabaki dute. (5. erabakia)

e) GASTEIZKO IRISGARRITASUNEKO UDAL KONTSEILUAREN JARRERA AUOREN ETA ZABALGANAKO OSASUN-ZENTROAREN ERAIKINEN AURREAN

Aurreko Kontseiluan landu zen gai hori. Irisgarritasuneko Udal Batzordearen jarreraren zehaztapena udalbatza berria eratu arte geroratu zen.

Eginaren Eginez elkarteak Kontseiluari jakinarazi dio Irisgarritasuneko Udal Batzordea desagertu egin dela eta talde transbertsal bat sortu dela; BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA. Eraikinon irisgarritasun-egoerari buruzko irizpena ez da izenpetu. Taldea martxan jartzea asko atzeratu da. Udalak irisgarritasuneko teknikariaren figura berreskuratu nahi omen du, baina elkarteak ez du jakin ahal izan sortu ote den.

Eginaren Eginez harremanetan dago AUOko eta osasun-zentroetako arduradunekin; jarrera ona hauteman du, eta adostutako hainbat jarduketa txiki egin dira. Txagorritxun gela egokitu bat egoteko proiektua onartu dute, eta gehiagora zabaltzeko asmoa adierazi; 2020rako logela guztiak irisgarriak izatea dute xede. Bi hilean behin biltzen dira, eta edonolako desgaitasunei loturiko elkarteei irekita daude. Hutsune bat sumatzen dute; desgaitasuna duten pertsonei lanpostuak eskaini ezin izatea.

f) DONOSTIAKO AUTOBUS-GELTOKIAK IRISGARRITASUNEKO ARAUDIA ZER MAILATAN BETETZEN DUEN

Kontseiluko Idazkaritzak eskatuta, Javier Regalado arkitektoak Donostiako autobus-geltokiaren irisgarritasun-egoera aztertzeko egin duen txostena aurkeztu dute. Eskatzen duten kideek jasoko dute txostena, eta Kontseiluaren barne-agirietan gorde beharreko konfidentzialtasun berdinaz jokatuko dute.

Kontseiluak bere egin du txostena, eta Donostiako Udalarekin harremanetan jartzea erabaki du, peritu-txosten horren berri eman eta hautemandako gabezientzako irtenbideak eskaintzeko. (6. erabakia)

3. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2015EKO URTEKO TXOSTENA AURKEZTEA ETA ONARTZEA

Kontseiluko kideei helaraziko zaien txostena aurkeztu dute.

Txostenaren edukiari eta egiturari buruzko iruzkinak egin ahal izateko 30 eguneko epea eman dute. (7. erabakia)

Elkartean-ek adierazi du saihestekoak direla errehabilitaziorako laguntzen deialdi batzuetan ageri diren «desgaitasunen araudiak»-en gisako esamoldeak.

4. INFORMAZIO INTERESGARRIA

a) IRISGARRITASUN-IKURRA OSTATU TURISTIKOETAN

Turismo Zuzendaritzak sailak irisgarritasunaren arloan hartutako konpromisoa aipatu du; Euskadi-Turismo Irisgarria Plana. Zehazki, ostatu turistikoetan irisgarritasun-ikur bat ipintzea proposatu dute, boluntarioa izango dena.

Kontseiluko Idazkaritzak dokumentazioa helaraziko die kideei eta 30 eguneko epea emango die, alegazioak egin ditzaten. Turismo Zuzendaritzari igorriko dizkio horiek atzera, kontuan har ditzan. (8. erabakia)

b) LAG-EN BERRIKUSPENAREN AURRERAPENAREN EGOERA, IRISGARRITASUN UNIBERTSALARI DAGOKIONEZ

Gai horren aurkezpenaren proiekzioa egin dute bilkuran eta akta honi atxiki zaio.
Turismo Zuzendaritzak «ostatu turistikoak eta hotelak» izendapenaren ordez «turismo-ostatuen enpresa» izendapena erabiltzea proposatu du, zabalagoa delako eta indarreko legerian erabilitako izendapenarekin bat datorrelako.

c) EUSKADIKO ZTBP 2020EN IRISGARRITASUNA SARTZEA HIRI-HABITATEKO ERAIKUNTZA JASANGARRIAREN ARLOAN

Gai horren aurkezpenaren proiekzioa egin dute bilkuran eta akta honi atxiki zaio.

d) 2013-2016 ALDIRAKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO RENOVE PLANAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO INFORMAZIOA, IRISGARRITASUNARI DAGOKIONEZ

Gai horren aurkezpenaren proiekzioa egin dute bilkuran eta akta honi atxiki zaio.

Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Planaren horizontea 2020ra arte luzatu dela jakinarazi dute. Egungo Planaren ebaluazioa egin ondoren, hurrengo Kontseiluan aurkeztuko dituzte horri buruzko jarraibideak.

e) KONTSEILUAREN JARDUKETA, 1/2013 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA BETEARAZI ETA SUSTATZEKO. LED HORREK DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI ETA HAIEN GIZARTERATZEARI BURUZKO LEGE OROKORRAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DU

Kontseiluko Idazkaritzak 30 eguneko epea eman die kideei gogoeta egin eta Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako helburuak betetzera bideratutako zein ekintza sorta abian jarri proposatu dezaten. (9. erabakia)

f) **ASKOTARIKOAK**

Gipuzkoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoerari eta beharrei buruzko azterlan diagnostikoa – Elkartu GIZARTE-INKLUSIOA

Elkartu elkarteari eskatu zaio lan horren ondorioak Kontseiluari azal diezazkion hurrengo bilkuretan.

5. GALDE-ESKEAK

- Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak iradoki du, halaber, Kontseiluko kide diren organismoek irisgarritasuna, haien esparrua edozein dela ere, hobetzea xede duten laguntza-aginduak argitaratzen badituzte, horren berri eman diezaioten Kontseiluaren Idazkaritzari, jakinaren gainean egon dadin eta haien zabalpena egin dezan.

Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sail guztiei idazki bana bidaltzea erabaki dute. (10. erabakia)

- Fekoor elkarteak eskatu du Kontseiluaren eginkizunei buruzko gogoeta egiteko, beharbada oraingo eginkizunak ez direlako sortu zen garaiko berak. Gizartearen zahartzeari aurre hartu behar diogu, gure helburuak zehaztuta.
Legearen edukian sakontzera bideratutako kanpaina bat egitea proposatu du, helburuak lurraldeka zehaztuz, eta profesionalei zein udal- nahiz administrazio-teknikariei begira.

Idazkaritzak bat egin du ideia horrekin eta datorren urtearen hasieran egin daitekeen osoko bilkura berezi batean aztertzea proposatu du. (11. erabakia)

- Euskal Gorrak elkarteak eskatu du desgaitasun kognitiboak eta funtzionalak dituzten pertsonen ikuspegia ere kontuan hartzeko irisgarritasunaren arloko esparru guztietan. Zehazki, eraikinetako eta inguruetako informazio- eta komunikazio-sistemei, igogailuen diseinuari (itsuek eta/edo gorrek erabili ditzaten) eta desgaitasun kognitiboa duten pertsonak artatzeko orduan ospitaleek dituzten ekipamenduen arteko aldeei dagokienez. Administrazioko teknikariek desgaitasun funtzionalari dagokionez informazio eta prestakuntza handiagoa jaso dezaten eskatu dute.
Eraikin publiko guztietan SVISUALen antzeko zerbitzua egon dadin eskatu dute, desgaitasun kognitiboa duten pertsonei informazioa eskaintzeko, eta sistemok eraikin osora hedatu dezaten, ez eremu jakin batzuetara soilik, aldageletara kasu.
Era berean, telebista publikoaren bigarren katean (ETB2) eduki egokituak (azpidatziak) falta direla salatu du elkarteak, baita Eusko Jaurlaritzaren webgunean (euskadi.eus), hauteskunde-mitinetan eta sustapen-bideoetan ere (zeinu-hizkuntza).

- Jorge Magánek (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren izenean hartu du parte Kontseiluan) eskatu du beharrezkoak diren neurriak har daitezen irisgarritasun-arloko legea eta arlo horretan eragin berezia duten udal-ordenantzak bete daitezen. Zehazki, espazio publikoetan erreserbatutako plazen kasua aipatu du, Mendizorrotza kiroldegian edo Buesa Arenan, esaterako. Halaber, taxi egokituei eta horien zerbitzuaren baldintzei buruzkoak betetzeko ere eskatu du.

Kontseiluko Idazkaritzak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin aurretiazko bilera bat egitea proposatu du gai horien xehetasunei buruz aritzeko, egungo egoera eta betetze-maila aztertzeko eta, ondoren, zerbitzu horien arduradunekin harremanetan jarri eta hautemandako gabeziei aurre egiteko. Bilera horietan lurralde guztien egoera aztertzea erabaki dute. (12. erabakia)

- Hurrengo bilkuretan hasiera- eta amaiera-ordutegia betetzea erabaki dute, bilkurak ez daitezen luzatu. Gaien gaineko informazioa aurreratuko zaie bertaratzen direnei eta bilkuretan eztabaidari tarte handiagoa eskainiko zaio, nahiz eta ondorioz bilerak maizago egin beharko diren. (13. erabakia)

- Kontseiluaren hurrengo bilera 2017ko otsailean edo martxoan egitea proposatu dute.

Beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman dute Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2016. urteko osoko bilkura.

Angel Toña Guenaga jauna
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentea

Ignacio Basáñez Alfonso jauna
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkaria

2. eranskina

Salbuespenen indizea

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
1	**BIZKAIA**	AMOREBIETA	2016-11-01	Jabeen erkideg oa	Zirilo Arzubiaga 1	Kabinaren dimentsioak ez dira bete
2	**BIZKAIA**	BASAURI		Jabeen erkideg oa	Menendez Pelayo 1	arrapala eraikitzeko zain
3	**BIZKAIA**	GETXO		Jabeen erkideg oa	Padre Félix de la Virgen 3	igogailua
4	**BIZKAIA**	GETXO		Jabeen erkideg oa	Artibal 17	igogailua
5	**GIPUZKOA**	AZKOITIA		osasun - zentroa	Jausoro jauregia	
6	**BIZKAIA**	ARRIGORRIAGA	2016-01-21	Jabeen erkideg oa	Santa Isabel 66	igogailua
7	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-01-25	Jabeen erkideg oa	Alberdi 1	igogailua
8	**GIPUZKOA**	ZUMARRAGA	2016-01-27	Jabeen erkideg oa	Elgarrestamendi 3	igogailua
9	**BIZKAIA**	ERANDIO	2016-01-27	Jabeen erkideg oa	Mitxelena 3	igogailua
10	**BIZKAIA**	ERANDIO	2016-01-27	Jabeen erkideg oa	Geltoki etorbidea 5	igogailua
11	**GIPUZKOA**	LASARTE-ORIA		Jabeen erkideg oa	Andatza plaza 2 eta 3	igogailua
12	**BIZKAIA**	IURRETA	2016-01-29	Jabeen erkideg oa	Uralde 4	igogailua
13	**BIZKAIA**	ERANDIO	2016-02-01	Jabeen erkideg oa	Tartanga 4	80 zentimetroko eskailera
14	**GIPUZKOA**	AZKOITIA	2016-01-28	PAR	Jarduera-lizentzia	
15	**GIPUZKOA**	ERRENTERIA	2016-02-04	Jabeen erkideg oa	Resurrección Mª Azkue 20	80 zentimetroko eskailera
16	**GIPUZKOA**	ZUMARRAGA	2016-02-08	Jabeen erkideg oa	Secundino Esnaola 4	igogailua

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
17	BIZKAIA	BASAURI	2016-02-08	Jabeen erkideg oa	Extremadura 6	arrapalak
18	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-02-09	Jabeen erkideg oa	Hilario Agapito 6	zero kota eta ataria
19	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-02-17	Jabeen erkideg oa	Zaballa 6	igogailua
20	GIPUZKOA	SORALUZE	2016-02-17	Jabeen erkideg oa	Santa Ana 21	igogailua
21	BIZKAIA	GETXO	2016-02-26	Jabeen erkideg oa	Salsidu 31	igogailua
22	BIZKAIA	GETXO	2016-02-26	Jabeen erkideg oa	Villaondoeta 17	igogailua
23	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-02-17	Jabeen erkideg oa	Balejo 12	igogailua
24	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-02-19	Jabeen erkideg oa	Foruen pasealekua 10	igogailua
25	GIPUZKOA	HONDARRIBIA	2016-02-23	Jabeen erkideg oa	Itsasargi 3	igogailua
26	GIPUZKOA	TOLOSA	2016-02-24	Jabeen erkideg oa	Zerkausia 2	igogailua
27	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-03-04	Jabeen erkideg oa	Arrandi 26	igogailua
28	GIPUZKOA	BASAURI	2016-03-03	Jabeen erkideg oa	Kareaga Goikoa 25	igogailua
29	GIPUZKOA	ARRASATE	2016-02-29	Jabeen erkideg oa	Loramendi 9	plataforma bertikala
30	GIPUZKOA	BASAURI	2016-03-11	Jabeen erkideg oa	Jose Etxegarai 10	igogailua
31	GIPUZKOA	ERRENTERIA	2016-03-11	Jabeen erkideg oa	Miguel Alduntzin 18-C	igogailua
32	GIPUZKOA	ARRASATE		Jabeen erkideg oa	Elkano 4	igogailua
33	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-03-09	Jabeen erkideg oa	Landaburu 25	igogailua

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
34	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-03-09	Jabeen erkideg oa	Falla 7	igogailua
35	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-03-09	Jabeen erkideg oa	Salgeta 1	igogailua
36	**GIPUZKOA**	BERGARA	2016-04-11	Jabeen erkideg oa	Artzamendi 15	Ataria eta igogailua
37	**GIPUZKOA**	ERRENTERIA	2016-03-08	Jabeen erkideg oa	Miguel Zabaleta 19	
38	**ARABA**	AGURAIN	2016-03-15	Jabeen erkideg oa	Langarika bidezidorra 6	ataria
39	**GIPUZKOA**	ERRENTERIA	2016-03-15	Jabeen erkideg oa	Santa Clara 27	Ataria eta igogailua
40	**BIZKAIA**	BERANGO	2016-03-15	Jabeen erkideg oa	Lantarte auzoa 11	igogailua
41	**GIPUZKOA**	ERRENTERIA	2016-03-15	Jabeen erkideg oa	Miguel Alduntzin 18-B	igogailua
42	**ARABA**	AGURAIN	2016-03-18	Jabeen erkideg oa	Dulantzi 35	igogailua
43	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-03-04	Jabeen erkideg oa	San Vicente 43	igogailua
44	**BIZKAIA**	GETXO	2016-04-29	Jabeen erkideg oa	Iturribide 5	igogailua
45	**GIPUZKOA**	DEBA	2016-04-26	Lokala	Calbetón taberna	sarrera
46	**GIPUZKOA**	OÑATI	2016-05-02	Jabeen erkideg oa	Foru plaza	igogailua
47	**ARABA**	IRUÑA-OKA	2016-05-02	UDALA	Udal pilotalekua	
48	**BIZKAIA**	ERANDIO	2016-05-02	Jabeen erkideg oa	San Lorenzo 15	igogailua
49	**GIPUZKOA**	BASAURI	2016-05-04	Jabeen erkideg oa	Balendin Berriotxoa 34-36-38	ataria
50	**GIPUZKOA**	LASARTE-ORIA	2016-04-05	Jabeen erkideg oa	Geltoki 25	igogailua

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
51	BIZKAIA	ERANDIO	2016-03-22	Jabeen erkideg oa	Etxegorri 11	ataria
52	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-03-23	Jabeen erkideg oa	Merindad de Uribe 6	igogailua
53	BIZKAIA	GETXO	2016-03-23	Jabeen erkideg oa	Cordelería 2	igogailua
54	BIZKAIA	GETXO	2016-03-23	Jabeen erkideg oa	Leioa etorbidea 1B	Barne eraberritzea
55	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-03-23	Jabeen erkideg oa	Elkano 27	igogailua
56	GIPUZKOA	AZKOITIA	2016-03-29	Lokala	Guardia 12, etxabea	Arkitektura azterketa
57	GIPUZKOA	DEBA	2016-04-05	Jabeen erkideg oa	Astillero 21	igogailua
58	GIPUZKOA	ARRASATE	2016-04-04	Lokala	Araba etorbidea 4	Hizkuntza eskola
59	GIPUZKOA	LEGAZPIA	2016-04-04	Jabeen erkideg oa	Laubide 13	igogailua
60	GIPUZKOA	BASAURI	2016-04-07	Jabeen erkideg oa	Kareaga Goikoa 117	igogailua
61	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-06-07	Jabeen erkideg oa	La Florida 3	igogailua
62	GIPUZKOA	OÑATI	2016-06-10	Jabeen erkideg oa	San Lorenzo 29	igogailua
63	GIPUZKOA	OÑATI	2016-06-10	Jabeen erkideg oa	San Lorenzo 30	igogailua
64	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-06-13	Jabeen erkideg oa	Herriko Plaza 14	Igogailua eta ataria
67	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-06-13	Jabeen erkideg oa	Sagasti 3	igogailua
68	GIPUZKOA	ARRASATE	2016-06-16	Lokala	Zerkaosteta 5, etxabea	Saltokia
69	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-06-20	Jabeen erkideg oa	Aldapa 4	igogailua

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
70	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-06-20	Jabeen erkideg oa	Nafarroa 9	igogailua
71	GIPUZKOA	ZARAUTZ	2016-06-01	Jabeen erkideg oa	Mitxelena 21	igogailua
72	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-06-06	Jabeen erkideg oa	Iparragirre 1	igogailua
73	ARABA	GASTEIZ	2016-05-27	Jabeen erkideg oa	Sebastian Fdz de Leceta 11I	igogailua
74	BIZKAIA	ERANDIO	2016-05-27	Jabeen erkideg oa	Gorostiza plaza 2	igogailua
75	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-05-27	Jabeen erkideg oa	Ramón y Cajal 1	igogailua
76	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-05-27	Jabeen erkideg oa	Bizkaia 50	igogailua
77	ARABA	LAUDIO	2016-05-24	Jabeen erkideg oa	Pío XII, 1	igogailua
78	GIPUZKOA	TOLOSA	2016-05-25	Jabeen erkideg oa	Posta kalea 50	igogailua
79	GIPUZKOA	ERRENTERIA	2016-05-19	EJ	Xenpelar 4	Epaitegia
80	GIPUZKOA	BASAURI	2016-05-13	Jabeen erkideg oa	Begoñako Andra Mari	igogailua
81	GIPUZKOA	DEBA	2016-05-10	Jabeen erkideg oa	Osio 1	plataforma bertikala
82	ARABA	GASTEIZ	2016-05-13	Jabeen erkideg oa	Fray Zacarias Martínez 91	Igogailua eta ataria
83	BIZKAIA	GETXO	zehazteko	Lokala	Illetas 12	Farmazia
84	ARABA	AGURAIN	zehazteko	Jabeen erkideg oa	Dulantzi 33	igogailua
85	GIPUZKOA	LEGAZPIA	2016-07-21	Jabeen erkideg oa	Urtatza 19	igogailua
86	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-07-21	Jabeen erkideg oa	Herriko Plaza 13	Igogailua eta ataria

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
87	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-07-21	Jabeen erkideg oa	Francisco Goya 5	igogailua
88	BIZKAIA	BASAURI	2016-07-21	Jabeen erkideg oa	Agirre Lehendakaria 21	igogailua
89	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-07-21	Jabeen erkideg oa	Hogar Propio 1	Plataforma bertikala eta ataria
90	GIPUZKOA	ERRENTERIA	2016-07-20	Jabeen erkideg oa	Alaberga 14	igogailua
91	GIPUZKOA	ERRENTERIA	2016-07-20	Jabeen erkideg oa	Segundo Izpizua 2	igogailua
92	GIPUZKOA	LAZKAO	2016-07-14	Jabeen erkideg oa	Uhaitz 3	igogailua
93	BIZKAIA	BARAKALDO	2016-07-13	Jabeen erkideg oa	Azorín 1	igogailua
94	ARABA	LAUDIO	2016-07-12	Jabeen erkideg oa	Jose Arrue 11	plataforma bertikala
95	BIZKAIA	AMOREBIETA	2016-06-30	Jabeen erkideg oa	Gudari 15	Eskailera-igogailua
96	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Goierri 4	Informaziorik gabe
97	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Goierri 2	Informaziorik gabe
98	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Jose Arana 10	Informaziorik gabe
99	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Etxezarreta 11	Informaziorik gabe
100	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Otatza 1	Informaziorik gabe
101	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Urdaneta 66	Informaziorik gabe
102	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Filipinak 17	Informaziorik gabe
103	GIPUZKOA	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Andra Maria 35	Informaziorik gabe

SAL 2016	LURRALDE HISTORIKOA	UDALERRIA	SARRERA-EGUNA		KOKAPENA	MOTA
104	**GIPUZKOA**	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Jose Arana 2	Informaziorik gabe
105	**GIPUZKOA**	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Samperio 8	Informaziorik gabe
106	**GIPUZKOA**	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Mendizabal 4	Informaziorik gabe
107	**GIPUZKOA**	ORDIZIA	2016-06-24	Jabeen erkideg oa	Urdaneta 27	Informaziorik gabe
108	**GIPUZKOA**	ERRENTERIA	2016-06-21	Jabeen erkideg oa	Moja Agustindarren etorbidea 13	igogailua
109	**GIPUZKOA**	BASAURI	2016-07-01	Jabeen erkideg oa	Jose Garai doktorea 22	igogailua
110	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-06-30	Jabeen erkideg oa	Batzar Nagusiak 43	igogailua
111	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-06-30	Jabeen erkideg oa	Santiago Apostolua 2	igogailua
112	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-06-30	Jabeen erkideg oa	Les Illes 3	igogailua
113	**GIPUZKOA**	IRUN	2016-06-30	Jabeen erkideg oa	Izaga 1	igogailua
114	**GIPUZKOA**	DONOSTIA	2016-06-28	Lokala	Legazpi 6	Igogailua eta ataria
115	**GIPUZKOA**	ANDOAIN	2016-08-25	Jabeen erkideg oa	Ondarreta 6B	igogailua
116	**BIZKAIA**	BARAKALDO	2016-07-20	Jabeen erkideg oa	Ibarra 9	igogailua
117	**ARABA**	LAUDIO	2016-08-02	Jabeen erkideg oa	Pio XII igarobidea 1	igogailua
118	**BIZKAIA**	ARRIGORRIAGA	2016-08-09	Jabeen erkideg oa	Severo Ochoa 9	igogailua
119	**BIZKAIA**	ERRENTERIA	2016-08-17	ADM	TKNIKA eraikina (LANBIDE)	igogailua
